

borroka armatua eta hedabideen jardueraren arteko loturak ez du hankarik ez bururik. Euskal kultura oro har susmopean jartzea dute helburu. Nekagarria da guztia».

JOSE MARIA MUJICA
(Topaguneko lehendakaria)

«Ez da aurrenekoa, ezta azkenekoa ere izango»

«Horrenbeste aipatzen den 'nosotros los democratas' horiek duten demokraziaren islada besterik ez da. Euskara, euskal kultura, euskalduntasuna bultzatzen ari den edonork demokrazia horretan ez du lekurik, eta era batera edo bestera zapatu egin behar dira eta bidetik baztertu. Ez da aurrenekoa ezta azkenekoa ere izango. Une hauetan Martxelo Otamendi eta Mertxe Aizpuruarekin gaudela adierazi eta presta gaitzen guztiok etorri daitekeenari aurre egiteko».

ANDOLIN EGUZKITZA (Euskal Idazleen Elkarte lehendakaria)

«Absurdoa da mezularia hiltzea mezugilearen kolaboratzailea delakoan»



«Lotsagarria da eta eztabaidagarria da. Hori da mezularia hiltzea mezugilearen kolaboratzailea delakoan. Hori absurdoa da, oinarritzko adierazpen askatasunaren kontrako neurria da. Saiatzen ari dira esaten ETAk dituen helburuak dauzkan edonork ETAtiartzat jo daitekeela, beraz, independentziaren alde dagoen edonork Euskal Herrian kriminal bat dela. Hori esaten dute eurek, formulatu gabe. Hori astakeria ezinjasenezko bat da. Horren aurka zuzen-zuzenean jo beharra dugu, ez dago beste modurik».

IÑAKI ARREGI
(UEMAko koordinatzailea)

«Eragile sozialek bat egin behar dugu neurriko erantzuna emateko»



«Nire elkartasuna adierazi nahi diet Otamendi, Aizpurua eta Abrili. Hirurak animatu nahi ditut bide beretik jarraitzeko. Une honetan kazetaritza bizirik badago, horrelako kazetariak bizirik daudelako da. Zoritxarrez, ez gara gauza erantzun bat emateko, gure artean liskarretan gabiltzalako. Indar politiko abertzale, sindikatuei eta eragile sozialei bat egiteko exijitu behar zaie eraso honek eskatzen duen neurriko erantzun bat eman dezaten. Denon erantzukizuna da».

ATXILOKETAK. Autoan segimendurako tresna bat zuela jakin berri zuten Altxarandiok



DAVID AGUILAR / EFE

Atxilotuetako bat atzo Zuhatu Gasteizen, etxearen miaketara eraman zutenean.

Irailean euren kabuz aurkeztu ziren bi lagun atxilotu ditu Guardia Zibilak

Altxarandiok eta Cortesek duela bi egun berretsi zuten deklaratzeko borondatea zutela

Axun Erzibengoa | DONOSTIA

Guardia Zibilak Susana Altxarandio 31 urtekoa, eta mutil-laguna Juan Antonio Cortes, 23koa, atxilotu zituen atzo goizeko 07:20an Arabako Zuhatu Gasteiz herrian, Altxarandio familiaren etxean. ETArekin lotu zuten operazioa eta Sansomendiko kuartelera eraman zuten bikotea lege antiterroristapean inkomunikatuta. Atxiloteta horiek abuztuko beste batzuekin lotu zituen Poliziak. Polizi iturriek miaketetan atzemandako uszteko materialari buruz informazio ugari zabaldu zuten birtartean, Askatasunak bi pertsona horiei buruz zenbait datu aipagarri zabaldu zituen.

Bi lagun horiek irailaren 17an euren borondatez joan ziren Espainiako Auzitegi Nazionalera deklaratzera, Guardia Zibila haien bila zebilela jakin ondoren. Proba kaligrafiko bat egin, eta deklarazioa hartu gabe aske utzi zituzten, eta behar izanez gero aurrerago deituko zituztela esan zieten.

Hori dela-eta Askatasunak gogor salatu zituen atzoko atxilotetak, pertsona horiek deklaratzeko prest agertu bai-

tira beti. Are gehiago, Guillermo Ruiz Polanco lehenengo instrukzio epaitegiko epaileak deklaratzera deitzen ez zituela ikusita azaroaren 12an idatzi bat aurkeztu zuten deklaratzeko prest zeudela berretsiz. Bi lagun horien abokatuak azkeneko aldiz asteazkenean esan zion epaitegiko idazkariari deklaratzeko prest zeudela. Idazkariak erantzun zion epaileak bazuela horren berri, eta

hark erabaki behar zuela. Atzo, ordea, atxilotu egin zituzten.

Segimendurako tresna

Altxarandio eta Cortesen egoera eta atxilotetaren inguruan beste datu deigarri bat ere eman zuten. Susana Altxarandio auto istripua izan zuten aste honetan. Autoa tailerrera eraman zuten konpontzeko eta hango langile batek autoaren

atzealdean —kolpeleungailuan— tramankulu bat aurkitu zuten. «Tramankulu horrek batera bat, antena eta seinale hartzaile bat zuten, imanen bidez autoari itsatsia», jakinarazi zuten Askatasunak. Asteazkenean eman zioten horren berri tailerrekoek Altxarandiori, eta atzo goizean epaitegian salaketa aurkezteko asmoa zuten. Askatasunaren ustez, «liratekeena da aurkikuntza honek Guardia Zibilaren operazioa azkartzea». Guardia zibilek atzo goizean autoa zegoen tailerrera joan eta autoa eraman zuten. «Autoaz gain, noski aipatu tramankulua eraman dute, ohikoa denez, euren egindakoaren frogak ezaibatuz», dio Askatasunak.

Atxilotetak eta gertaera horiek guztiak salatzeaz gain, kezka agertu zuten Askatasunak. Gasteizko beste hiru gazterekin azaroan antzeko zerbait gertatu zela adierazi zuten, eta helburua argia dela: «gazteen inculpazioa lortzea tortura bidez». Ildo horretan, abuztuan eta irailean Araban eginiko polizi operazioan atxilotutakoek torturak salatu zituztela gogorarazi zuten, Unai Romano eta Juan Carlos Subijananen kasuak aipatuz.

MIAKETAK

Bertsio desberdinak

Altxarandio eta Cortes atxilotu zituzten etxea miatu zuten Guardia Zibilak atzo goizean 7:20etatik 13:10ak arte. 60 bat guardia zibil joan ziren bertara. Miaketan material ugari atzeman zutela zabaldu zuten Guardia Zibilak: «Eskuizkribuak ETArekin helburuekin, AABei buruzko dokumentazioa, egoera txarrean zegoen pistola bat, ordenagailuko sei disko gogor, 100 euro eta 780 dolar amerikar».

Atxilotetak gertatu ziren etxean zeuden senitartekoek esan zuten, ordea, ondorengo eraman zuten: «bi ordenagailu, Altxarandio egiten ari den tesiaren dokumentazioa, aitonen Col pistola bat eta edredoi bat». «Errugabetasun presuntzioaren urratzea» salatu zuten Askatasunak. Gasteizen beste etxe bat ere miatu zuten. Irailean atxilotu aurrerakoa neurri hartu ez zela eta, Mariano Raxoi Espainiako Barne ministroak esan zuten, orduan ez zela Altxarandio eta Cortesen aurkako frogarik biltzerik izan.